

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekiko izango duen harremana pertsonala zein automatizatua izango da. Gure dendak denda fisiko bat izango du, eta, aldi berean, web orri bat. Beraz, bezeroek zerbitzu pertsonala eta autozerbitzua izango dute.

Denda fisikoan laguntza pertsonala eskainiko diegu bezeroei, gure produktuak nola funtzionatzen duen azaltzeko eta bezero bakoitzarentzat egokiena aukeratzeko laguntzeko. Dendan, bezero guztiei pertsonalki argituko dizkiegu zalantzak.

Online dendan, zerbitzua automatizatua izan dadin, gure bezeroek gure produktuak erosi ahal izango dituzte, baita zalantza guztiak galdetu ere, gure bezeroen eskura jarriko dugun posta-helbidearen bidez. Mezu elektronikoen bidez, zalantzak galdetu ahal izango dizkigute eta produktuaren funtzionamenduari buruzko azalpenak eskatu, denda fisikoan bezala. Azkar eta zehatz erantzungo dugu, gure bezeroen beharrei erantzuten saiatuz. Horrez gain, zerbitzua eta produktua hobetzeko ideiak eta aholkuak eman ahal izango dizkigute.

Gure bezeroekin harremana mantentzeko, gure webean harpidetza egiteko aukera izango dute, eta gure promozio eta jaurtiketa berriekin mezu elektronikoko bat bidaliko diegu. Horrez gain, mezu elektronikoko baten bidez galdetuko diegu ea produktuarekin agustatzen ari den edo arazoren bat duen, eta, kasu horretan, jar daitezela gurekin harremanetan mezu elektronikoko baten bidez edo etor daitezela gure dendara, eta pozik lagunduko diegu.